

**BASKEPENSIONES BGAE  
INDIBIDUALA  
BORONDATEZKO GIZARTE  
AURRIKUSPENEKO  
ERAKUNDEAREN  
ESTATUTUAK**

2016ko apirila

## AURKIBIDEA

1. artikulua: IZENA ETA ERREGIMEN APLIKAGARRIA
2. artikulua: EGOITZA
3. artikulua: NORTASUN JURIDIKOA ETA JARDUTEKO GAITASUNA
4. artikulua: XEDEA
5. artikulua: LURRALDE EREMUA ETA LANGILE EREMUA
6. artikulua: JARDUERAREN HASIERA ETA IRAUPENA
7. artikulua: BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK ETA EZAUGARRIAK
8. artikulua: BAZKIDE SUSTATZAILEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK
9. artikulua: BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK
10. artikulua: FONDOAK ETA FINANTZA-BERMEAK
11. artikulua: GIZARTE AURREIKUSPENEKO PLAN BAKOITZARI ATXIKITAKO ONDAREA
12. artikulua: ONDAREA KUDEATZEA, GORDAILATZEA ETA ZAINZEA
13. artikulua: ESTALITAKO GERTAKIZUNAK
14. artikulua: BAZKIDE ARRUNTEN EKARPENAK
15. artikulua: EKARPENEN LIKIDAZIOA
16. artikulua: PRESTAZIOAK
17. artikulua: ERAKUNDEAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK
18. artikulua: BAZKIDE ARRUNT IZATEARI UZTEA
19. artikulua: GOBERNU ORGANOAK
20. artikulua: GOBERNU ORGANOEN ETA BERTAKO KIDEEN ERANTZUKIZUNAK
21. artikulua: GOBERNU ORGANOETAKO KIDE IZATEKO BALDINTZAK
22. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN OSAERA
23. artikulua: BATZAR NAGUSIKO KIDE IZATEARI UZTEA ERAGITEN DUTEN KASUAK
24. artikulua: BATZAR NAGUSI MOTAK
25. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA, ERAKETA ETA ERABAKIAK
26. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIAK AURKARATZEA
27. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN ESKUMENAK
28. artikulua: GOBERNU BATZORDEAREN OSAERA ETA KIDEAK IZENDATZEA
29. artikulua: KARGUEN IRAUPENA ETA HUTSIK DAUDEN KARGUAK BETETZEA
30. artikulua: GOBERNU BATZORDEKO KARGUAK
31. artikulua: GOBERNU BATZORDEAREN DEIALDIA, ERAKETA ETA ERABAKIAK

- 32. artikulua: GOBERNU BATZORDEAREN ESKUMENAK
- 33. artikulua: GOBERNU BATZORDEAREN ERABAKIAK AURKARATZEA
- 34. artikulua: LEHENDAKARIAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK
- 35. artikulua: LEHENDAKARIORDEAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK
- 36. artikulua: IDAZKARIAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK
- 37. artikulua: BATZARKIDEEN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK
- 38. artikulua: ZUZENDARITZAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK
- 39. artikulua: ADMINISTRAZIO GASTUAK
- 40. artikulua: GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK
- 41. artikulua: FALTAK
- 42. artikulua: ZEHAPENAK
- 43. artikulua: ZEHAPENAK EZARTZEKO PROZEDURA
- 44. artikulua: DESEGITEA
- 45. artikulua: LIKIDAZIOA

## I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### **1. artikulua: IZENA ETA ERREGIMEN APLIKAGARRIA**

Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak “**BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA**” (aurrerantzean, “**Erakundea**”) du izena.

Erakundearen jarduna unean-unean indarrean den legezko araudiaren, erregelamenduaren eta beheragoko mailako gainerako xedapenen mende egongo da, baita estatutu hauen (“**Estatutuak**”) eta uneoro erakundeak bere gain har ditzakeen gizarte-aurreikuspeneko bestelako planek ezartzen dituzten erregelamenduen mende ere.

#### **2. artikulua: EGOITZA**

Erakundearen egoitza Donostiako (Gipuzkoa) Bergara kaleko 14.a behean dago.

#### **3. artikulua: NORTASUN JURIDIKOA ETA JARDUTEKO GAITASUNA**

Erakundeak nortasun juridiko propioa eta independentea du, baita dagozkion helburuak betetzeko gaitasun osoa ere, bazkide sustatzailea nor den gorabehera.

Ondorioz, gaitasun juridiko osoa ez ezik, jarduteko ahalmen osoa ere badu, legeriaren xedapenek agindutakoez beste mugarik gabe. Hain zuzen, legeriaren eta estatutu hauen xedapen berezien babesean eratu da.

#### **4. artikulua: XEDEA**

Erakundearen informazio-printzipio eta helburu nagusiak honako hauek dira:

- a) Estatutu hauen artikuluek xedatutakoaren arabera, bazkide onuradunen pentsio eta prestazio ekonomikoak asetzea, erretiro, ezintasun iraunkor, heriotza, gaixotasun larri, luzaroko langabezia edo menpekotasun kasuetan.
- b) Edozein pertsona fisikori bazkide edo kide bihurtzeko aukera eskaintzea, estatutu hauetan zehaztutakoez gain beste mugarik gabe, eta eskubide eta betebeharrak berdinekin, egindako ekarpenei eta haiei dagozkien prestazioei dagokienez.
- c) Dirua irabazteko asmorik gabe aritzea eta, hortaz, erakundeko ordezkariak doan betetzea karguari lotutako eginkizunak. Aurrekoa gorabehera, ordainsariak edo gastuen konpentsazioak eman dakizkieke Gobernu Batzordeko kideei funtzio exekutiboak edo administratiboak betetzen dituztenean.
- d) Kudeaketan eta emaitzetan gardentasun, informazio eta komunikazio osoko politika izatea, eta bazkideei erakundearen gobernu-organoetan (“**Gobernu Organoak**”) demokrazia osoz parte hartzeko aukera eskaintzea.

- e) Gobernu-organoen egitura eta osaera demokratikoari eustea, eta organo horiek aukeratzekoan gizartearen erakusgarri izatea, eta haietako kideek dagozkien funtzioak bete ahal izateko beharrezko informazioa eskuratzeko aukera izatea.
- f) Ekarpenean erregimenaren bidez, bazkideen gizarte-aurreikuspeneko aurrezkoa sustatzea, horiei eta beren inbertsioen errendimenduari esker, gertakizunak estaltzeko behar diren hornidura tekniko nahikoak eratu ahal izan ditzaten.
- g) Indarrean den legedian ezarritako erregimen ekonomiko finantzarioa eta zerga-erregimena onartzea.
- h) Erakundearen baliabideak eta hari atxikitako gizarte-aurreikuspeneko plan indibidualak segurtasun-, errentagarritasun-, likidezia-, dibertsifikazio-, banaketa- eta diru-kongruentziako irizpideen eta helburuei egokitutako epeen arabera inbertitzea, eta aktiboen eta horiek baloratzeko irizpideen egitura, mugak eta ezaugarriak indarrean dauden xedapenek araututakoari lotzea.
- i) Erakundearen eta atxikitako gizarte-aurreikuspeneko plan indibidualen kaudimena eta finantza-oreka zaintzea.
- j) Administrazio- eta kontabilitate-antolakuntza egokia mantentzea eta, horretarako, erakundea kontrolatzeko barne-prozedurak izatea, ondo funtzionatuko duela eta erakundeko bazkide arruntei eta onuradunei zerbitzu egokia eskainiko zaiela bermatzeko.

Erakundeak gizarte-aurreikuspeneko hainbat plan indibidual baliatu ahalko ditu garatu ahal izateko; horien arteko aldeak inbertsio-irizpide desberdinek ezarritakoak dituzte eta ondare bereziak izango dituzte.

## **5. artikulua: LURRALDE EREMUA ETA LANGILE EREMUA**

Erakundearen jardun- eta jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegora mugatzen da.

Erakundearen langile-eremua bazkide edo onuradun izaera legez hartzen duten pertsona fisikoek ezartzen dute, estatutu hauetan zein gizarte-aurreikuspeneko prestazioen araudietan eta araudi aplikagarrian ezarritakoari jarraiki.

## **6. artikulua: JARDUERAREN HASIERA ETA IRAUPENA**

Erakundearen jarduera Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak dagokion baimena eman zuen egunean hasi zen; hau da, 1997ko martxoaren 12an. Erakundearen iraupena mugagabea da.

## II. TITULUA

### BAZKIDEAK ETA ONURADUNAK

#### I. KAPITULUA

##### MOTAK ETA EZAUGARRIAK

### **7. artikulua: BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK ETA EZAUGARRIAK**

7.1 Honako bazkide mota hauek daude (aurrerantzean, batera, “**Bazkideak**”):

a) Bazkide sustatzailea:

Kutxabank SA da bazkide sustatzailea, eta borondate eratzaillez eta hasierako ekarpenak eginez parte hartu du borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde baten sorreran. Gainera, erakundearen gobernu-organoetan parte hartzen du, haren estatutuek ezarritako moduan, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Kutxabank SAK Bilbon (Bizkaia) du egoitza, Diego López Haro kale nagusiko 30-32 zenbakietan, eta inskribatuta dago Bizkaiko Merkataritza Erregistroan (5.226. liburukia, 1. folioa eta BI-58.729 orria). A-95.653.077 IFK zenbakia du (“**Bazkide sustatzailea**”).

b) Bazkide arruntak edo osoak:

Bazkide arruntak edo osoak pertsona fisikoak dira, prestazioren bat lor dezaketenak, beraientzat edo beren onuradunentzat, unean-unean indarrean den araudiaren arabera (“**Bazkide arruntak**”).

Hainbat modalitate daude bazkide arrunten artean:

- Bazkide arrunt aktiboak: beraientzat edo beren onuradunentzat prestazioren bat jasotzeko eskubidea duten pertsonak, beraiek edo hirugarrenek beren izenean eginiko ekarpen ekonomikoen bitartez (“**Bazkide arrunt aktiboak**”).
- Etenaldian dauden bazkide arruntak: bazkide aktiboak izan direnak baina egun ekarpenik egiten ez dutenak, ez beren kabuz ezta hirugarrenek beren izenean ere (“**Etenaldian dauden bazkide arruntak**”).
- Bazkide arrunt pasiboak: bazkide aktiboak izan direnak eta prestazioaren zuzeneko titularrak izatera igaro direnak, subjektu babestu gisa, gertakizuna jazo ondoren (“**Bazkide arrunt pasiboak**”).

- 7.2 Era berean, Erakundeak onuradunak izan ahalko ditu eta haiek pertsona fisikoak izango dira, kausatzailearekin duten harremanagatik prestazioaren titular bihurtzen direnak gertakizuna jazo ondoren (“**Onuradunak**”).

## **II. KAPITULUA**

### **ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### **8. artikulua: BAZKIDE SUSTATZAILEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

1 - Honako hauek dira bazkide sustatzailearen eskubideak:

- a) Gobernu-organoetako karguak aukeratzea eta aukeratu izatea, prestazioen estatutuetan edo arautegietan ezarritakoari jarraiki, bere izenean erakundeko gobernu-organoetan parte hartuko duten pertsona fisikoak izendatuta.
- b) Erakundearen jardueraren, funtzionamenduaren eta finantza-egoeraren berri jasotzea, dagokion unean eta berak eskatutako xehetasunez.
- c) Erakundearen xedeekin bat datozen neurri edo jarduerak proposatzea, haren funtzionamendua hobetze aldera.
- d) Erakundearen gobernu-organoen akordioen eta erabakien aurka egoki irizten diren errekurtsioak edo erreklamazioak jartzea.
- e) Gobernu-organoetan parte hartzea, dela zuzenean, dela ordezkarien bidez, erakundearen estatutuen eta atxikitako gizarte-aurreikuspeneko planen araudien arabera.
- f) Erakundearen estatutuak eta atxikitako gizarte-aurreikuspeneko planen araudiak ezagutzea, baita gobernu-organoen osaera, eta estatutuetan, araudian nahiz gobernu-organoaren osaeran izandako aldaketak ere.
- g) Lege-arauetan eta estatutu hauetan aitortzen zaizkion gainerako guztiak.

2 - Honako hauek dira bazkide sustatzailearen betebeharrak:

- a) Dagoeneko finkatuta dauden edo gerora finka litezkeen lege-, arau- eta estatutu-xedapenak zorrotz betetzen direla zaintzea.
- b) Mutualitatearen fondoaren kontzeptuagatik 50.000 euroko hasierako ekarpena ordaintzea.
- c) Gobernu-organoek hartutako baliozko erabakiak betetzea.

- d) Estatutu hauetan eta prestazioen arautegietan ezarritako ekarpenak ordaintzea.
- e) Araudi aplikagarrian edo estatutuetan ezarritako beste edozein.

## **9. artikulua: BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

1-. Honako hauek dira bazkide arrunten eta onuradunen eskubideak:

- a) Erakunderen egoeraren berri jasotzea, indarreko araudian ezarritako baldintzetan eta epeetan, eta, bereziki, honako informazio hau izatea eskura:
  - i. Erakundearen estatutuak, gizarte-aurreikuspeneko planaren araudia eta gobernu-organoen osaera.
  - ii. Estatutuetan, araudietan nahiz gobernu-organoen osaeran egindako aldaketak.
  - iii. Inbertsioen printzipioen adierazpena, honako hauek bildu beharko dituen: Erakundeak inbertitzen dituen aktiboen arrisku-profila eta haiek kudeatzeko erabilitako teknikak. Erakundeak bere inbertsioetan gizartearekin eta ingurumenarekin loturiko alderdiak zein alderdi etikoak eta gobernu korporatibokoak aintzat izaten dituen ezagutzea. Ez badu halakorik aintzat hartzen, horren zergatiaren berri eman beharko du. Arlo horretan politika bat duenean deskribatu egin beharko du, laburki bada ere, baztertze-, integrazio- edo inplikazio-estrategiak zehaztuta. Horretaz gain, zer aktibotan aplikatzen duen ere aipatu beharko du, baita, hala badagokio, gizarteari begira arduratsua den politika horren aplikazioa egiaztatzeko modua ere.
  - iv. Aplikaturiko administrazio-gastuaren ehunekoa, eta balore higitarren salerosketaren ondoriozko bitartekaritza-gastuaren ehunekoa, baita balio horien errotazio-ratioa ere.
  - v. Erakundeko auditoreen nortasuna.
  - vi. Gizarte-aurreikuspeneko planaren ondareak izan duen bilakaera historikoa, ezarritako urteko errentagarritasun helburuena eta azken hiru ekitaldietan lorturiko errentagarritasunak –edo plana sortu zenetik itxitako ekitaldietan, hiru baino gutxiago izanez gero–. Errentagarritasun historikoari buruzko informazioak adierazitako errentagarritasunak etorkizunekoak bermatzen eta mugatzen ez dituela dioen berriazko adierazpen bat bildu beharko du. Aurrekoa lortze aldera, errentagarritasuna kalkulatzeko indarreko araudian ezarritakoa hartuko da aintzat.
  - vii. Ekarpenei eta jaso litezkeen prestaziei aplikatu beharreko zerga-erregimenari buruzko informazioa.
  - viii. Erakundeko eta gizarte-aurreikuspeneko planeko gobernu-organoen aurrean erreklamaziorik jarritz gero, defentsa-eskubideari buruzko informazio egokia.



- ix. Etorkizuneko pentsio-eskubideen zenbatespenari buruzko informazioa, BGAE arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak ezartzen duenari jarraiki.
- x. Ekarpen definituko gizarte-aurreikuspeneko planetan sarturiko bazkide arruntei eta onuradunei dagokienez bakarrik, gutxienez sei hilean behin erakundeak haien eskubide ekonomikoen balioari, eraginpeko ondarearen zati alikuoten kopuruari eta zati alikuota bakoitzaren balioari buruzko ziurtagiri bat igorriko du aldiaren hasieran; aldi horretan eginiko zuzeneko ekarpenei edo inputatuei, baita eginiko lekualdaketei eta aldi horretan asetako prestazioei buruz ere; eta, azkenik, dagozkion eskubide ekonomikoen balioari, eraginpeko ondarearen zati alikuoten kopuruari eta zati alikuota bakoitzaren balioari buruz, aldiaren amaieran.
- xi. Prestazio definituko planetako bazkide arruntei eta onuradunei dagokienez bakarrik, gutxienez urtean behin, erakundeak ziurtagiri bat igorriko du aldi bakoitzean eginiko ekarpen zuzenei edo inputatuei buruz, haren amaieran bere eskubide ekonomikoek duten balioari buruz, halakorik balego, eta aldiaren asetako prestazioen zenbatekoari buruz. Gainera, kudeaketa txosten laburtu bat ere igorriko du, bazkideekin harreman telematiko duenean izan ezik. Kudeaketa txosten laburtuak arautegi aplikagarrian ezartzen den informazioaren laburpen bat bilduko du.
- xii. Bazkide arruntei dagokienez bakarrik, legezko erretiro adina baino bi urte lehenago, gutxienez, erretiroagatik prestazioa jasotzeko eskura dituen aukerei buruzko informazioa jasotzea.
- xiii. Bazkide arrunt pasiboentzat eta onuradunentzat bakarrik: zor diren prestazioei eta haiei dagozkien ordainketei buruzko informazioa jasotzea. Era berean, bazkide arrunt pasiboek eta onuradunek pentsioa jasotzeko fasean inbertsio-arrisku maila esanguratsua hartzen dutenean beren gain, argi eta garbi azalduko zaie egoera.
- xiv. Batzar Nagusiak hartutako erabakiei buruzko informazioa.
  - b) Gobernu-organoetako karguak aukeratzea eta haietarako aukeratua izatea, estatutu hauetan eta haietan bildutako gizarte-aurreikuspeneko planen arautegietan ezarritakoari jarraiki.
  - c) Aukeratua suertatuz gero, erakundearen gobernu-organoetan parte hartzea, estatutuetan eta haietan bildutako gizarte-aurreikuspeneko planen arautegietan bermaturiko ordezkarezekin. Erakundeak hainbat gizarte-aurreikuspeneko plan biltzen dituenean, parte-hartzea haietako bakoitzarekiko proportzionala izango da, estatutu hauetan aurreikusitako irizpideei jarraiki.
  - d) Etenaldian dauden bazkideen kasuan izan ezik, berak egindako ekarpenen arabera, pertsonalki edo bere senar-emaztearen alde, partaidetza kopuru baliokidea eskuratzea, data horretan partaidetzak duen balioaren arabera.
  - e) Eskubidez dagozkion prestazioak jasotzea.

- f) Borondatezko baja hartuz gero, bere izenean metatutako eskubide ekonomiko guztiak edo zati bat berreskuratzea edo erreskatatzea, indarrean dagoen araudiaren arabera eta estatutu hauetan eta erakundearen bildutako gizarte-aurreikuspeneko planen arautegietan aurreikusitako baldintzetan, arautegi horiek adierazitako eskubidea aitortzen ez duten kasuetan izan ezik. Ahalmen hori bazkide arruntei bakarrik dagokie.
- g) Edozein unetan dagozkion eskubideak beste gizarte-aurreikuspeneko plan indibidual batera lekualdatzea.

Eskubide ekonomikoen lekualdaketa honako preskripzio hauek arautuko dute:

- i. Bazkide arrunten eta/edo onuradunen eskubide ekonomikoak beste gizarte-aurreikuspeneko plan batzuetara lekualdatu ahalko dira haiek hala eskatuz gero, eta, betiere, jaso beharreko prestazioaren zenbatekoaren gainean bermerik edo konpromisorik ez badago.
  - ii. Bazkide arruntek eta/edo onuradunek idatzi bat zuzenduko diote beren eskubideak jasotzea nahi duten gizarte-aurreikuspeneko erakundeari, bertako bazkide izan nahi dutela jakinarazteko (baldin eta dagoeneko ez badira), eta bere eskubide ekonomikoak jasotzea onar dezan eskatzeko. Horretaz gain, lekualdaketa zer erakundetik eta gizarte-aurreikuspeneko planetik egin nahi duen adieraziko du. Era berean, aurreikuspen-erakunde hartzailearentzako baimen-agiri bat erantsiko du, erakunde horrek jatorrizko erakundeari beraren izenean eska diezaion eskubide ekonomikoen zenbateko zehatz bat edo kopuru osoa lekualdatzea, baita eskubide ekonomiko horiek eragin zituen lehen ekarpenaren dataren egiaztagiri bat ere.
  - iii. Eskubide ekonomikoak lekualdatzeko gehieneko epea bost egun baliodunekoa izango da, dokumentazio guztia jatorrizko erakundearen aurkezten denetik zenbatzen hasita.
- h) Erakundearen gobernu-organoen akordioaren eta erabakien aurka egoki irizten diren errekurtsioak edo erreklamazioak jartzea.
  - i) Lege-arauetan eta estatutu hauetan aitortzen zaizkien gainerako guztiak.

2 - Honako hauek dira bazkide arrunt eta onuradunen betebeharrak:

- a) Bazkide arruntentzat bakarrik: ekarpenak egitea estatutuetan, arautegietan, atxikitze-buletinean edo beste edozer dokumentutan hitzartutako moduan.
- b) Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak eskaturiko datu guztiak ematea eta eguneratzea, behar bezala funtziona dezan eta dagozkion eskubideak baliatzeko aukera izan dezan. Bereziki, etxebizitza-aldaketa guztien berri ematea erakundeari.
- c) Izendatua izanez gero, kargua onartzea, arrazoitutako ezintasunik ez badago.
- d) Gobernu-organismoek egoki hartutako erabakiak betetzea.

- e) Administrazioaren edo dagokion beste edozer jurisdikzioren aurrean edozein jarduketa egin aurretik, Gobernu Batzordearen edo bazkidearen babeslearen aurrean –haiek aukeratuko dute– erreklamazioa aurkeztea.
- f) Legezko arauen eta estatutu hauen ondorioz zor daitezkeen gainerako betebeharrak betetzea.

### III.TITULUA

#### ONDARE ERREGIMENA

##### **10. artikulua: FONDOAK ETA FINANTZA BERMEAK**

Erakundeak honako fondoak eta finantza bermeak eratuko eta mantenduko ditu, irizpide ekonomikoei, finantzarioei eta aktuarialei jarraiki, eta kaudimen eta oreka finantzarioko printzipioen baitan:

- 1) Gutxienez 50.000 euroko mutua fondo bat, modu iraunkorren eratu bazkide sustatzailearen ekarpenekin edo sozietatearen ekitaldietako soberakinekin. Fondo hori aktibo egokietan gauzatu beharko da eta erabat ordainduta egon beharko du. Bazkide sustatzaileak mutua-fondoa itzultzea erreklamatu ahalko du, betiere erakundeak kaudimendun izaten jarraitzen badu.
- 2) Estatutu hauetan eta prestazioen arautegietan aurreikusitako gertakizunak estaltzeko erakundearen jardueratik eratorritako obligazio guztiak islatzeko behar adinako zorrak biltzen dituzten hornidura teknikoak.
- 3) Modu iraunkorren, fondo osagarriak, hornidura teknikoak gauzaten direnekiko osagarriak diren aktiboetan gauzatu direnak. Aktibo horiek edozer konpromiso aurreikusgarritik aske egongo dira, eta segurtasun-tarte gisa balioko dute, aurreikusitako eta egiazko gastuen eta prestazioen arteko desbideratzeak xurgatzeko. Segurtasun-tartearen gutxieneko zenbatekoa edo portzentajea une bakoitzean aplikagarria den araudian aurreikusitakoa izango da.

Erakundearen segurtasun-tarteari dagozkion ekarpenak xedapen libreko erreserben kargura egingo dira, eta aurrekoak egon ezean bakarrik egingo ditu bazkide sustatzaileak.

Bazkide sustatzaileak segurtasun-tartera eginiko ekarpenak itzultzea eskatu ahalko du, betiere erakundeak dagokien gizarte-aurreikuspeneko planen segurtasun-tartearen gutxieneko zenbatekoei eusten badie.

## **11. artikulua: GIZARTE AURREIKUSPENENKO PLAN BAKOITZARI ATXIKITAKO ONDAREA**

### **11.1 Gizarte-aurreikuspeneko planak integratzea**

Gobernu Batzordearena izango da hainbat gizarte-aurreikuspeneko plan integratzea erabakitzeko eskumena, estatutu hauetan aurreikusitako gehiengoekin bat. Plan horiek dagokion prestazio-arauegien bitartez gauzatuko dira. Plan horietako bakoitzak dagozkion inbertsio-politikak identifikatuko ditu eta plan horietara atxikitako bazkideek eginiko ekarpenak zer aktibo motatan inbertitu erabakiko du, baita ondarearen inbertsioaren kudeaketatik eratorritako errendimenduak ere.

### **11.2 Gizarte-aurreikuspeneko planei atxikitako ondarea**

Gizarte-aurreikuspeneko planei atxikitako ondareztat joko da ekarpen guztiek xedaturiko kapitalizazio-fondoa, prestazioak, lekualdaketak eta/edo erreskateak kenduta, kalkuluak erreferentzia egiten dion denbora-tartean eginikoak izan ezik, gehi inbertituriko baliabideek sorrarazitako errendimenduak eta aktiboaren gainbalioak edo minusbalioak, kalkuluak erreferentzia egiten dion eguneko merkatuko prezioaren arabera balioetsiak, edo, halakorik ez balego, haien balio efektiboaren arabera, zuhurtzia-irizpide handien arabera eta orokorki onartutako balorazio-metodoak aplikatuta, ken gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzerako ezarritako administrazio-gastuen zenbatekoa. Atxikitako ondarea zati alikuotetan banatuta egongo da.

### **11.3 Gizarte-aurreikuspeneko planei atxikitako ondarearen inbertsioa**

Erakundearen integraturiko gizarte-aurreikuspeneko planei atxikitako ondarea erakundearen Gobernu Batzordeak unean-unean erabakitako inbertsio-profilen arabera inbertituko da; hori guztia, inbertsio horiek egiteko hirugarren pertsonak eskuordetzeari kalterik eragin gabe. Eskuordetze hori kontratu baten bidez egingo da. Nolanahi ere, gizarte-aurreikuspeneko planei atxikitako ondarea honako irizpide hauen arabera inbertituko da: segurtasuna, likidezia, errentagarritasuna, dibertsifikazioa, banaketa eta helburuen araberrako diru-kongruentzia eta epe egokiak.

### **11.4 Gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzari dagokion ondarea indibidualizatzea**

Erakundeak gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzari atxikitako ondarea uneoro indibidualizatuta egon dadin zainduko du. Horretarako, gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzari dagokion ondareak berezko balio likidagarri bat izango du, bazkide bakoitzaren ekarpenek sorturiko eskubide ekonomikoei dagokien balioa zehazte aldera, eta modu indibidualean zehaztuko du eskubide ekonomiko horiek uneoro duten balorazioa.

Inbertsio politikoaren emaitza gisa, dauden gizarte-aurreikuspeneko planetako bakoitzean sorturiko irabaziek edo galerek eragina izango dute erakundearen bildutako beste gizarte-aurreikuspeneko plan bati atxikitako bazkideen eskubide ekonomikoen balorazioan.

## **12. artikulua: ONDAREA KUDEATZEA, GORDAILATZEA ETA ZAINZEA**

Gobernu Batzordeak gizarte-aurreikuspeneko planen ondarearen kudeaketa kontratatu ahalko du, baita haien gordailaketa eta zainketa ere, dagokion kontratuak sinatuta; haietan hainbat alderdi arautuko dira, besteak beste: agintearen iraunaldia, ordainsaria eta Gobernu Batzordeak egokitzat jotzen dituen gainerako jarraibideak, betiere unean-unean aplikagarri den araudiari zorrotz lotuta.

## **IV. TITULUA**

### **BABES EKINTZA ETA EKARPENEN ETA PRESTAZIOEN ERREGIMENA**

## **13. artikulua: ESTALITAKO GERTAKIZUNAK**

Betiere estatutu hauek garatzeko erregelamenduan aurreikusitako arauei jarraiki, erakundeak honako gertakizunen gainean gauzatzen du bere babes ekintza:

- a) Erretiroa. Erretiroa hartzeko aukerarik ez denean, gertakizuna gertatukotzat joko da 60 urte betetzean. Erretiro partzialaren erregimenean sartzen diren bazkideek, eta dagokion prestazioa jaso arren, erabateko erretirorako ekarpenak egin ahalko dituzte.
- b) Ezintasun iraunkorra edo lan egiteko baliaezintasuna, Gizarte Segurantzaren edozein erregimenean eta antzekoetan ezarritakoari jarraiki, edo organo eskudunaren arabera.
- c) Heriotza.
- d) Mendekotasuna.
- e) Epe luzeko langabezia.
- f) Gaixotasun larria.

## **14. artikulua: BAZKIDE ARRUNTEN EKARPENAK**

Erakundeak bildutako gizarte-aurreikuspeneko plan desberdinei eginiko ekarpenak bazkide arruntek egin ahalko dituzte, baita hirugarrenek ere haien izenean, unean-unean indarrean den funtsezko araudian edo zerga-araudian ezarritakoarekin bat.

Horretaz gain, desgaitasuna duten bazkideak izanik, beraiek edo hirugarrenek egin ahalko dituzte ekarpenak, haien izenean eta hain alde, araudi aplikagarrian ezarritakoari jarraiki.

Atxikitze-buletinean aldizkako ekarpenen plan bat ezarri ahalko da. Ekarpen-plana berrikusi, eten edo aldatu ahalko da, bazkide arruntaren nahiaren arabera, eta horrek

atxikitze-buletinean onesten den unetik izango du eragina. Eginiko ekarpenek indarreko araudian eta prestazioen arautegian ezarritakoa bete beharko dute.

#### **15. artikulua: EKARPENEN LIKIDAZIOA**

Bazkide arruntek edo haien izenean hirugarrenek ordaindutako ekarpenak erakundeak erakunde gordailuzainean irekita duen gizarte-aurreikuspeneko planaren kontu korrontean sartuko dira.

Bazkideek beren ekarpenengatik partaidetza kopuru jakin bat jasoko dute ekarpen horiek egiten dituzten gizarte-aurreikuspeneko planetik. Kopuru hori dagokion balio likidagarria ezartzearen emaitza izango da.

Erakundearen Gobernu Batzordeak zehaztuko ditu balio likidagarria kalkulatzeko eta partaidetzak esleitzeko irizpideak, gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzari dagokionez, indarreko araudiak ezarritakoaren arabera.

#### **16. artikulua: PRESTAZIOAK**

Prestazioek, oro har, diruzko izaera dute eta kapital moduan ordain daitezke, errenta aktuarial gisa –bai aldi baterakoa, bai biziartekoa– zein finantza-errenta eta errenta misto gisa, araudi aplikagarrian, estatutu hauetan edo prestazioen arautegian ezarritakoari jarraiki.

Prestazioak norberarenak dira eta ezin dira besterendu, eta sortu ziren helburuari lotuta daude, estatutuen edo arautegien edukiarekin bat; hortaz, indarreko araudian ezarritakoa bete beharko da horien gainean kenketak, atxikipenak, lagapenak, konpentsazioak edo enbargoak egiteko.

Edonola ere, eginiko prestazioak bazkide arruntak edo, hala badagokio, onuradunak, erakundearekiko hartutako betebeharren mende daude.

Diruzko prestazioak bazkide arrunt pasiboari edo onuradunari ordaindu behar zaizkio, enbargo edo eragozpen judizial edo administratibo bat dagoenean izan ezik.

Erakundeak ordainduriko prestazioek ez dute, inongo kasutan, pentsio publikoaren izaera edukiko, eta, hortaz, ez dira pentsioen konkurrentzia-araubideari lotuta egongo.

Erakundearen ardura da prestazioak jasotzeko eskubidea aitortzea eta haiek ordaintzea.

Dagokion prestazioak jasotzeko egokitasuna aitortzeko eskubidea hori eragiten duen gertakizunaren unean bertan sortzen da. Kobratzeko eskubidea erakundeak aitortu beharko du, arauz ezarritako epearen barruan eta, betiere, dagokion eskubidea egin ondoren. Aitortza horrek ez du, inongo kasutan, eskubidea sorrarazten duen gertakizuna gertatu aurreko eraginik izango.

Bazkide arrunt pasiboek eta/edo onuradunek zuzenean kobratu dutela ulertuko da prestazioaren zenbatekoa pertsona baten edo gehiagoren izenean dagoen aurrezki-

libreta, kontu korrante edo antzeko batean ordaindu zaienean, betiere pertsona horietako bat adierazitako bazkide arrunt pasiboa edo onuraduna denean.

## **V. TITULUA**

### **BAZKIDE ARRUNT IZATEKO AUKERA EDUKITZEA, BAZKIDE ARRUNT IZATEA ETA IZATEARI UZTEA**

#### **17. artikulua: ERAKUNDEAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Bazkide arrunt izan ahalko dira dagokien atxikimendu-kontratua sinatu eta erakundeko gizarte-aurreikuspeneko planetan eskubide ekonomikoak mantentzen dituzten pertsona fisikoak.

BGAEEK gizarte-aurreikuspeneko planen ezaugarri guztiei buruzko informazioa eman beharko diete balizko bazkide guztiei eta, bereziki, lehenetsitako planei buruzkoa eta, hala badagokio, eta, bereziki, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren, borondatezko aurreikuspen sozialeko erakundeen jarduera jakin batzuk arautzeko denaren 4. artikuluko 1. zenbakiko a), c), d), e), f), g), h) eta i) idatz-zatietan adierazitakoari buruzkoa, edo hura osatzen edo ordezkatzeko duen araudian ezarritakoa.

#### **18. artikulua: BAZKIDE ARRUNT IZATEARI UZTEA**

Bazkide arruntek baja hartu ahalko dute erakundeetan, honako egoera hautakoren bat gertatuz gero:

- a) Heriotza.
- b) Borondatezko baja, betiere estatutu hauek garatzeko arautegian edo arautegietan berariaz aurreikusita badago aukera hori.
- c) Erakundea desegitea.
- d) Eskubide ekonomiko guztiak jaso badira.
- e) Eskubide ekonomiko guztiak lekualdatu badira.
- f) Atxikitze-buletinetan edo, hala badagokio, estatutu hauek garatzen dituen arautegi espezifikoan edo espezifikoetan aurreikusitakoak.
- g) Dagokion araudi aplikagarriak ezarritako beste edozer arrazoi dela medio.

**VI. TITULUA**  
**GOBERNU ORGANOAK**

**19. artikulua: GOBERNU ORGANOAK**

Hurrengo organo hauek gobernatuko dute erakundea:

- a) Batzar Nagusia ("**Batzar Nagusia**").
- b) Gobernu Batzordea ("**Gobernu Batzordea**").

Batzar Nagusia erakundearen gobernu-organo gorena da. Gobernu Batzordea da erakundea zuzentzea eta ordezkatzeko dagokion organoa. Batzar Nagusiak erreserbatuta ez dituen eskumen guztiak dauzka.

Batzar Nagusia, erakundearen borondatea adierazteko organo gorena den aldetik, hainbat ordezkari osatzen dute, eta haien ardura da erakundean bat egiten duten interes guztiak ordezkatzeko erantzukizuna, estatutuetan aurreikusitako baldintzetan; hau da, bazkide sustatzailea, bazkide arruntak eta onuradunak.

**20. artikulua: GOBERNU ORGANOEN ETA BERTAKO KIDEEN ERANTZUKIZUNAK**

Araudi aplikagarriak ezarritako obligazioak eta betebeharrak urratzen dituzten gobernu-organoetako kideek zein administrazio-, kudeaketa- eta zuzendaritza-funtzioak betetzen dituztenek, erantzukizun administratibo zehagarria izango dute, araudian xedatutakoaren arabera.

**21. artikulua: GOBERNU ORGANOETAKO KIDE IZATEKO BALDINTZAK**

Gobernu-organo bateko kide izateko honako baldintzak bete behar dira:

- a) Adinez nagusia izan eta eskubide zibilak osorik baliatzeko aukera edukitzea.
- b) Estatutu hauetan azaldutakoaren arabera aukeratua edo izendatua izatea.
- c) Gizarte-aurreikuspenarekin loturiko lanbide-kualifikazio, ezagutza eta esperientzia egokiak izatea, Gobernu Batzordeko kide izateko.



## **I. KAPITULUA**

### **BATZAR NAGUSIA**

#### **22. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN OSAERA**

Batzar Nagusia 20 ordezkari osatuko dute, honakoen arabera:

- a) Bazkide sustatzailea bera, bere ordezkari den pertsona fisiko bat izendatu beharko duena kargu hori betetzeko.
- b) Bazkide sustatzaileak bere ordezkari gisa aukeraturiko bederatzi lagun.

Bazkide sustatzailearen ordezkari arituko diren bederatzi pertsonak ez dute zertan bazkide arrunt edo onuradun izateko baldintza bete. Gainera, bazkide sustatzaileak edozein unetan ordezkari ahalko ditu, egoera horren berri Gobernu Batzordeko lehendakariari emanda, zeinak jasota utziko duen lagapena edo izendapena.

- c) 10 ordezkari bazkide arrunt eta onuradunen izenean.

Bazkide arrunt eta onuradunen izenean arituko diren 10 ordezkariak (eta haien ordezkariak, kopuru berean) honako prozedura honi jarraiki izendatuko dira:

- Gobernu Batzordeak bere kideen artean izendatuko du hauteskunde-batzordea, lehendakariak eta bi batzordekide osatua.
- Hauteskunde-batzordeak BGAEko bazkide arrunt eta onuradunen izenen zerrenda egingo du, planen arabera banakatuta, eta plan bakoitzak BGAEaren ondare osoaren gainean ordezkari duen ondarearen ehunekoa adieraziko du, eskura duen informazio ahalik eta eguneratuenaren arabera.
- Planen ordezkarien parte-hartze eraginkorra bermatzeko eta proportzionaltasun-irizpideei jarraiki, plan bakoitzari dagokion ordezkarien kopurua, kasu bakoitzean, gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzaren ondare-bolumenari jarraiki kalkulatu da. Horretarako, BGAEaren ondare osoa zati 20 eginda ateratzen den zifraren berdina edo handiagoa den ondarea duen planak proportzio horretatik ondorioztatzen diren ordezkariak izateko eskubidea edukiko du (betiere zatiki osoetan), bazkide arrunt eta onuradunei dagokien ordezkari kopurura iritsi arte. Ordezko kopuru bera egokituko zaio.

Adibide gisa, gizarte-aurreikuspeneko bost plan badaude banaka erakundearen ondare osoaren % 20 ordezkari dutenak, plan bakoitzak bi ordezkari izan ahalko ditu, 10etik, baita bi ordezkari ere.

- Plan bakoitzari dagokion ordezkari eta ordezkari kopurua (aurrekoen kopuru bera) kalkulatu ostean, izendatu egingo dira, notario aurrean zozketa eginda. Horretarako, aurreko irizpideari jarraiki ordezkari izateko eskubidea duten planak adina zozketa egingo dira notario aurrean, zozketa bakoitzean oinarri gisa

hartuta dagokion planak bildutako bazkide arrunt eta onuradunen guztizko kopurua, hauteskunde-batzordeak eginiko erroldarekin bat.

Bazkide arrunt eta onuradun bakoitza plan bakar bateko ordezkari edo ordezko izan ahalko da. Bazkide arrunt edo onuradun bat hautatzen badute plan baten zozketan, eta berriz ere hurrengo zozketa batean, bere hautagaitza alde batera utziko da eta hautagai berri bat hautatuko da.

- Notario aurreko zozketan hautatuko den hautagai kopurua plan bakoitzari dagokion ordezkarien eta ordezkoen guztizko zenbakiaren kopuru bera izango da. Hautaketa egiteko insakulatzea baliatuko da. Hauteskunde batzordeak jakinaraziko die hautagaiei hautatu egin dituztela, insakulatzeko-ordena zorrotzean, lehenengo ordezkariak eta gero ordezkoak onar dezaten lortu arte, betiere plan bakoitzari dagokion kopuruaren arabera.

Plan baten ordezkarien eta ordezkoen kopurua ezingo balitz estali notario aurreko zozketan hautaturiko hautagaiekin haiek ez dutelako izendapena onartu, bazkide sustatzaileari egokituko zaio plan horri dagozkion ordezkariak eta/edo ordezkoak aukeratzea, dagokion kontsultak egin ostean. Horretarako, bazkide sustatzaileak aintzat hartuko ditu, besteak beste, honako irizpide hauek: bazkidearen antzintasuna, esperientzia eta aurreikuspenaren sektoreari buruz duen ezagutza, gaitasun profesionalak, konpromisoa eta prestasuna.

- Agintaldian zehar ordezkarien postuak hutsik geratuko balira eta ezingo balira behar bezala bete ordezkoekin, ez da hutsune horiek betetzeko beharrik izango, ordezkarien guztizko kopurua 11tik beherakoa izan ezik; kasu horretan, desegin egin beharko da Batzorde Nagusia eta ordezkariak eta ordezkoak izendatzeko prozesu berri bat jarri beharko da abian.

Izendapena egin ostean, ordezkariak beren gain hartuko dituzte bazkideei dagozkien zeregin guztiak, erakundearen Batzar Nagusiaren borondatearen ordezkari gisa. Gainera, behar adinako ardurarekin bete beharko dituzte dagozkien zereginak, eta erakundearen eta bazkide arrunt eta onuradunen arteko informazio-zubi gisa duten funtzioa betetzen saiatuko dira uneoro.

Batzar Nagusiko kideek 4 urteko agintaldia izango dute, gobernu-organoetako partaide izateko beharrezko eskakizunak betetzeari uzten diotenean izan ezik. Halaber, kide hauek nahi adina aldiz berriro hautatzeko aukera dago.

### **23. artikulua: BATZAR NAGUSIKO KIDE IZATEARI UZTEA ERAGITEN DUTEN KASUAK**

Ordezkariek funtzio hori betetzeari utzi ahalko diote honako kasu hauetan:

- a) Agintaldia amaitu denean, lau urteren buruan, iraupen bereko beste aldi batzuetarako berriz hautatuak izateko aukerari kalterik eragin gabe.
- b) Heriotza dela eta.

- c) Gobernu Batzordearen aurrean behar bezala justifikaturiko ezintasun fisikoagatik edo beste edozer motatako ezintasunagatik.
- d) Erakundeko bazkide arrunt edo onuradun gisa baja hartzeagatik, bazkide sustatzailea ordezkaten duten batzordekideen kasuan izan ezik, horiek ez baitute zertan erakundeko kide izan.
- e) Batzar Nagusiko kide izateko legezko edo estatutuzko betekizunak galtzeagatik.
- f) Bazkide sustatzailea ordezkaten dutenei dagokienez, hark horietakoren bat ordezkatu izanagatik.

## **24. artikulua: BATZAR NAGUSI MOTAK**

Batzar Nagusia ohikoa edo apartekoa izan ahalko da. Ohiko Batzar Nagusia erakundeak egoitza duen udalerrian deituko eta egingo da, ekitaldi bakoitza itxi ondorengo lehenengo lau hilabeteetan, eta, bertan, honakoak aztertu eta onartuko dira, hala badagokio: Gobernu Batzordearen kudeaketa, kudeaketa txostena, urteko kontuak, indarrean den urteko aurrekontua eta gai-zerrendan bildutako gainerako auziak. Beste edozein Batzar Nagusi apartekoa izango da.

## **25. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA, ERAKETA ETA ERABAKIAK**

### **25.1 Deialdia**

Ohiko zein aparteko Batzar Nagusia Gobernu Batzordeak deituko du, ordezkari bakoitzari egindako idatzizko jakinarazpenaren bitartez. Jakinarazpen hori bileraren eguna baino 10 egun balioudun lehenago egin beharko da, gutxienez, eta 30 egun natural baino lehenago, gehienez.

Aparteko Batzar Nagusia deitu ahalko da Gobernu Batzordeak, bere borondatez, hala erabakitzen duenean, bazkide sustatzaileak eskatzen duenean edo ordezkarien ehuneko hogeik (% 20), gutxienez, eskatzen duenean.

Batzar Nagusia, bai ohikoa, bai apartekoa, erakundearen egoitza dagoen udalerrian egin beharko da. Batzar Nagusi bakoitza egin baino lehen, eta hura deitzen den egunetik zenbatzen hasita, erakundeak kideen esku jarri beharko du, egoitzan bertan, eztabaidagai izango den dokumentazioa, eta, hala badagokio, onartu beharko dena.

Boto guztien gainean gutxienez % 10 ordezkaten dituzten Batzar Nagusiko kideek gai-zerrendan punturen bat sartzeko eskaera egiteko eskubidea izango dute.

Batzar Nagusiaren deialdian bileraren data, eguna eta ordua zehaztu beharko dira, bai lehenengo deialdiarena, bai bigarrenarena, eta argi eta garbi, eta behar adinako zehaztasunez eta xehetasunez azalduko dira gai-zerrenda osatzen duten puntuak.

### **25.2 Eraketa**

Batzar Nagusia lehenengo deialdian behar bezala eratuta geratuko da bertara kide guztien erdiak gehi bat bertaraten direnean, bai aurrez aurre, bai hirugarren batek

ordeztuta. Kopuru horretara iristen ez bada, ordu erdi geroago eta leku berean egingo den bigarren deialdian behar bezala eratuta geratuko da, bertaratuen kopurua –aurrez aurre etorritakoak edo ordezkatuak– edozein dela ere.

Batzar Nagusiko kideek beste ordezkari batzuk eduki ahalko dituzte beren izenean jarduteko, bilkura bakoitzerako izaera bereziarekin eta idatziz adierazita.

Batzar Nagusietara joan ahalko dira erakundearen gaien martxa egokian erantzukizuna duten zuzendari, kudeatzaile, teknikari eta gainerako pertsona guztiak.

Era berean, Gobernu Batzordeko kideek Batzar Nagusietara joan beharko dute, eta beren ordezkari gisa joateko Gobernu Batzordeko beste kide bat izendatu ahalko dute.

Batzar Nagusiko lehendakaria Gobernu Batzordeko lehendakaria izango da, edo, bestela, estatutuen arabera hari dagozkion funtzioak betetzen dituen, edo, aurrekoak egon ezean, batzarrak berak aukeraturiko ordezkaria. Presidenteari dagokio eztabaidak zuzentzea, bilkuraren jardunean ordenari eustea eta legezko formaltasunak betetzen direla zaintzea. Laguntzaile izango du Gobernu Batzordeko idazkaria edo, hura egon ezean, haren ordezkoa, eta horiek egon ezean, batzarrak izendaturiko pertsona.

### **25.3 Erabakiak hartzeko erregimena**

Erabakiak hartzeko, emandako boto baliodunen erdia gehi bat izan beharko dira alde.

Estatutuak aldatzeko, beste erakunde batzuekin bat egiteko, banantzeko edo federatzeko eta erakundea desegiteko, ezinbestekoa izango da emandako botoen bi heren (2/3) alde izatea.

Arau orokor gisa, ordezkari bakoitzak boto bakarra emateko eskubidea izango du.

Salbuespen gisa, bat-egiteko, banantzeko, desegiteko, estatutuak aldatzeko eta bazkide sustatzaileari dagozkion Gobernu Batzordeko kideak hautatzeko erabakiak hartzeko, bazkide sustatzailearen botoa haztatzerakoan, ordezkariak eman ditzaketen boto guztien ehuneko berrogei (% 40) ordezkaturiko duela hartuko da aintzat.

Hortaz, adibide gisa soilik, Batzar Nagusira ordezkari guztiak agertzen badira, aurrez aurre edo ordezkarien bitartez, hau da, 20 guztira, eman litezkeen guztizko botoak 32 izango dira, eta horietatik, bazkide arrunten eta onuradunen ordezkariak eta bazkide sustatzaileak 19 boto emateko eskubidea izango lukete (bat ordezkari bakoitzak), eta bazkide sustatzaileak 13 boto emateko eskubidea izango luke.

Horretarako, biribiltzeak hurrengo unitate osora egingo dira, zatikia 50 edo gehiago denean, eta aurreko unitate osora, zatikia 50etik beherakoa denean.

Hartutako erabakiek bazkide guztiak behartzen dituzte, baita disidenteak eta bertaratu ez direnak ere.

Batzar Nagusira akta-liburu bat eramango da, eta haren edukia indarreko xedapenetan aurreikusitako eskakizunetara egokituko da.

Batzarreko erabakiak aktan jasoko dira; berau idazkariak idatziko du eta akta liburuan transkribatuko du. Akta batzarrak berak onartu ahalko du, hura egin ostean eta, halakorik ezean, 30 eguneko epean lehendakariaren eta batzarrean bertan hark izendaturiko bi kideren bitartez; guztiek sinatuko dute idazkariarekin batera.

## **26. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIAK AURKARATZEA**

Bazkideek eskubidea izango dute Batzar Nagusian hartutako zenbait erabaki aurkaratzeko; hala nola, legearen aurkakoak, estatutuei kontra egiten dietenak edo bazkide baten edo gehiagoren edo hirugarrenen mesedetan, erakundearen edo bere bazkide arrunten eta onuradunen interesak urratzen dituztenak.

Eraginik gabe utzitako edo beste batengatik ordezkaturiko erabakirik ezingo da aurkaratu.

Kasu guztietan, aurkaratzeko epea 30 egun baliodunekoa izango da, erabakia interesdunari jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

## **27. artikulua: BATZAR NAGUSIAREN ESKUMENAK**

Honako hauek izango dira Batzar Nagusiaren eskumenak:

- a) Gobernu Batzordearen kudeaketa, aurreko ekitaldiko ikuskaturiko urteko kontuak, erakundearen kudeaketa-txostena eta indarrean den urterako aurrekontua aztertzea eta onartzea.
- b) Gobernu Batzordea osatu behar duten kideak izendatzea, baita haiek ordezte ere, estatutuetan aurreikusitakoari jarraiki.
- c) Erakundearen eta bere kideen onura ekarriko duten Gobernu Batzordeak aurkezturiko proposamenak aztertzea.
- d) Estatutu hauen berriztatzea edo aldaketa aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
- e) Erakundearen Bazkideek eta onuradunek haren aurrean aurkezturiko errekurtsioak ezagutzea eta ebatzea.
- f) Erakunde hau desagiteari, banantzeari edo beste BGAE batekin edo batzuekin bat-egiteari edo federatzeari buruzko auziak ebatzea, betiere bazkide sustatzailearen nahitaezko onespenearekin.
- g) Bazkidearen babesle bat izendatzea bazkide arrunt eta onuradunen eskubideak zain ditzan.
- h) Kontu-ikuskaria edo kanpoko ikuskaritza-enpresa aukeratzea, izendatzea eta ezeztatzea.
- i) Araudi aplikagarriak esleituriko gainerako guztiak edo horretarako eskumena duten organoek haren mende jarritakoak eta erakundearentzat interesgarriak direnak, betiere gai-zerrendan bilduta daudenean.

## **II. KAPITULUA**

### **GOBERNU BATZORDEA**

#### **28. artikulua: GOBERNU BATZORDEAREN OSAERA ETA KIDEAK IZENDATZEA**

Gobernu Batzordea Batzar Nagusiak ordezkarien artean izendaturiko 10 kidek osatuko dute, eta honako ezaugarri hauek izango dituzte:

- Bostek bazkide arrunt eta onuradunen taldea ordezkaturiko dute, eta haien ordezkariak proposaturiko dituzte bilkuran.
- Gainerako bostak bazkide sustatzailearen ordezkari izango dira eta hark proposaturiko ditu.

Guztiek bete beharko dituzte indarreko araudiak dagokion kargua betetzeko uneoro ezarritako kualifikazio- eta prestakuntza-baldintzak.

Gobernu Batzordeak emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan beharko du, erakundearen duten ordezkariaren ehunekoari dagokionez.

#### **29. artikulua: KARGUEN IRAUPENA ETA HUTSIK DAUDEN KARGUAK BETETZEA**

Gobernu Batzordeko kideak lau urterako izendaturiko dira, eta inolako mugarik gabe aukeratu ahaliko dira berriz.

Gobernu Batzordeko kideek kargua utziko dute honako kasu hauetan:

- a) Agintaldia amaitu denean, lau urteren buruan, iraupen bereko beste aldi batzuetarako berriz hautatuak izateko aukerari kalterik eragin gabe.
- b) Heriotza dela eta.
- c) Gobernu Batzordearen aurrean behar bezala justifikaturiko ezintasun fisikoagatik edo beste edozer motatako ezintasunagatik.
- d) Karguari uko egiteagatik, Gobernu Batzordeari hala jakinarazita.
- e) Batzar Nagusiaren erabakia dela eta.

Hutsik geratzen diren karguak behin-behinean beteko dira, aurreko kargudunaren agintaldiaz geratzen den eperako. Behin-behineko izendapen horiek Gobernu Batzordeak berak egingo ditu eta Batzar Nagusiaren lehenengo ohiko bilkuran berretsiko dira.

Kargua utzitako ordezkariak lanbide-sekretua gordetzera behartuta daude kargu hori izan bitartean ezagaturiko gai guztien inguruan.

### **30. artikulua: GOBERNU BATZORDEKO KARGUAK**

Gobernu Batzordeko kideen artean lehendakari bat, lehendakariorde bat eta idazkari bat egongo da. Lehendakaria bazkide sustatzailearen ordezkari bat izango da.

Lehendakariordea eta idazkaria Gobernu Batzordeak izendatuko ditu bere kideen artean.

Aurrekoa gorabehera, idazkari kargua Gobernu Batzordeko edo erakundeko kide ez den pertsona batek bete ahalko du; kasu horietan hitza izango dute, baina ez botoa.

Erakundeko gobernu-organoetako kargu batek ere ez du ordainsaririk jasoko. Aurrekoa gorabehera, ordainsariak edo gastuen konpentsazioak eman dakizkieke Gobernu Batzordeko kideei funtzio exekutiboak edo administratiboak betetzen dituztenean. Horiek eraginkor izateko Batzar Nagusiak onespena eman beharko du.

### **31. artikulua: GOBERNU BATZORDEAREN DEIALDIA, ERAKETA ETA ERABAKIAK**

#### **31.1 Deialdia**

Gobernu Batzordearen ohiko bilkurak hiru hilean behin izango dira, edo lehendakariak beren beregi deitzen duenean. Lehendakariak Gobernu Batzordeko kideei bidaliko die deialdia, idatziz, bilera egin baino 10 egun lehenago gutxienez, haren gai-zerrendarekin batera.

Halaber, Batzar Nagusiaren deialdian, gai-zerrendan sartutako gaiak erabakitzeke bileraren data, ordua eta tokia adieraziko dira.

Gobernu Batzordeko kideen heren batek bileren gai-zerrendan puntuak sartu ahal izango ditu lehendakariari zuzendutako idatzizko jakinarazpenaren bidez, gutxienez Gobernu Batzordearen bilkura baino bost egun natural lehenago.

#### **31.2 Eraketa**

Gobernu Batzordea lehenengo deialdian behar bezala eratuta geratuko da, bertara kide guztien erdiak gehi bat bertarutzen direnean. Kopuru horretara iristen ez bada, ordu erdi geroago leku berean egingo den bigarren deialdian behar bezala eratuta geratuko da, bertaratuen kopurua edozein dela ere.

#### **31.3 Erabakiak hartzeko erregimena**

Erabakiak emandako aldeko botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira. Bozketa batean berdinketa gertatzen denean, lehendakariak kalitateko botoaz erabakiko du.

Gobernu Batzordeko kideen ordezkari Gobernu Batzordeko beste kide batzuk izan ahalko dira.

Gobernu Batzordearen bilkura guztietara akta-liburu bat eramango da, eta bertan bilduko dira egindako bilerak, eztabaidaren gorabeherak eta hartutako erabakiak.

### **32. artikulua: GOBERNU BATZORDEAREN ESKUMENAK**

Gobernu Batzordearen eskumenak hurrengo hauek dira:

- 1- Erakundea gobernatzea, administratzea eta ordezkatzeta.
- 2- Estatutu hauetan eta gizarte-aurreikuspeneko planen araudietan eta indarreko arau-esparruari jarraiki ezarri beharreko izaera orokorreko arautegietan (besteak beste, zerga-araudia eta kapitalak zuritzea prebenitzekoa) bildutako aginduak betetzea eta betearaztea.
- 3- Planen txertaketa onartzea eta haien arautegiak baliozkotzea eta berrestea, hala badagokio estatutu hauek garatuko dituztenak, eta lehendik daudenak aldatzea edo ezeztatzea.
- 4- Ikuskaturiko urteko kontuak, indarrean den urterako aurrekontua eta kudeaketa txostena Batzar Nagusiaren aurrean aurkeztea, onar ditzan.
- 5- Batzar Nagusiari honako gai hauek proposatzea: estatutu hauek aldatzea, erakundearen bat-egitea, banantzea edo federazioa beste erakunde batekin edo batzuekin, eta erakundea desegitea.
- 6- Erakundearentzat eta bere bazkide eta onuradunentzat onuragarriak izango diren neurriak hartzeko iradokizunak helaraztea eta proposatzea.
- 7- Kontratuak sinatzea hirugarrenekin, ondarea kudeatzeko, gordailatzeko, zaintzeko, aholkularitza jasotzeko eta administratzeko, edo erakundeak behar bezala funtzionatzeko eta ekonomikoki eta finantzarioki sendotzeko kanpora ateratzea beharrezko den beste edozer jarduera, betiere erakundearen begiradapean eta kontrolpean.
- 8- Prestazioak onartzea, onartutakoak eta erabidean daudenak zainduz nahiz kontrolatuz.
- 9- Uneoro izatea aldaketa legal eta fiskalen berri.
- 10- Erakundearen administrazio-egintza oro, haren kaudimena eta finantza-oreka kontrolatzea eta zaintzea, baita fondoak eta baloreak administratzea, ondasunak, aktiboak, akzioak eta eskubideak kontratatzea eta salerostea ere.
- 11- Erakundearen inbertsio-politika orokorra onestea eta zehaztea, inbertsio-printzipioen idatzizko adierazpena tarteka berrikusita, eta erakundearen baliabideak zuhurtziaz eta modu profesional eta arduratsuan inbertituta.
- 12- Inbertsioei buruzko printzipioen adierazpenaren aldaketa adostea, eta egingo den lehenengo Batzar Nagusian horren berri ematea.



- 13- Estatutu hauetan eta gizarte-aurreikuspeneko planetan emandako eskumen guztiak baliatzea; horretarako, egoki deritzen erabakiak hartuta eta estatutuen edukia nahiz dagozkien legezko xedapenak errespetatuta.
- 14- Dagokion zehapenak ezartzea, estatutu hauetan eta gizarte-aurreikuspeneko planetan zehaztutakoaren arabera, eta beharrezko datuak eta txostenak eskatzea.
- 15- Bazkideek planteaturiko errekursoak eta erreklamazioak ebaztea, estatutu hauetan ezarritako prozedurari jarraiki.
- 16- Bere funtzioak arretaz gauzatzea eta bazkide sustatzailearen nahiz bazkide arrunten aurrean maltzurkeriaz, eskumenen abusuz edo zabarkeria larriaz eragindako kalteengatik erantzutea.
- 17- Batzar Nagusiaren bileren deialdia egitea eta bere erabakiak betetzea.
- 18- Estatutu hauek eta gizarte-aurreikuspeneko planen araudiak ezartzeak dakartzan zalantzak argitzea, erakundearen hurrengo ohiko batzarrean horien berri emanda.
- 19- Erakundearen zuzendaritza burutzea, behar den eran administratuz.
- 20- Kideen prestakuntza egokiaz arduratzea.
- 21- Bazkide arrunten eta onuradunen interesen alde egitea, zuhurtziaz eta modu kontziente eta arduratsuan.
- 22- Erakundea behar bezala kudeatzeko indarreko legediaren arabera eska daitezkeen idatzizko politikak baliatzea, eta haiek behar bezala berrikusi eta ezartzen direla zaintzea.
- 23- Batzar Nagusiarenak bakarrik ez diren gainerako eskumenak.

Aurreko eskumenak aipa daitezkeen batzuk baino ez dira, baina ez dira mugatzaileak.

Gobernu Batzordearen berezko funtzioak –araudi aplikagarriarekin edo estatutu hauekin bat eskuordetu ezin direnak izan ezik– eskuordetu ahalko dira, betiere adierazitako batzordearen begirada eta kontrolpean.

Gobernu Batzordeko kideak kudeaketa ekonomikoaren, administratiboaren eta sozialaren erantzule dira dagokion administrazio-organoen eta Batzar Nagusiaren aurrean, eta azken horren aurrean eman beharko dituzte kontuak.

### **33. artikulua: GOBERNU BATZORDEAREN ERABAKIAK AURKARATZEA**

Gobernu-organoeak eta bazkideek errekurtsua jarri ahalko dute Gobernu Batzordearen ebazpenen aurka Batzar Nagusian.

Kasu guztietan, errekurtsua jartzeko epea 30 egun baliodunekoa izango da, interesdunak erabakia ezagutzen duen egunetik edo ezagut zezakeen egunetik zenbatzen hasita.

#### **34. artikulua: LEHENDAKARIAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK**

Gobernu Batzordeko lehendakaria erakundearen ordezkari gorena izango da. Honako ahalmen eta funtzio hauek izango ditu:

- 1- Gobernu Batzordearen izenean, erakundearen ordezkari izatea egingo diren ekintza eta kontratu guztietan.
- 2- Batzar Nagusiko bileren lehendakaria izatea eta Gobernu Batzorderako deialdia egitea nahiz haren lehendakari izatea, eta bozketak ebatzea berdinketa kasuetan.
- 3- Gobernu-organoen gai-zerrenda ezartzea.
- 4- Erakundearen ekintza eta zerbitzu guztiak fiskalizatzea eta hari eragiten dioten legezko xedapenak betetzen direla zaintzea.
- 5- Gobernu-organoek hartutako erabakiak betetzea.
- 6- Erakundearen izenean ahalmena ematea eta dokumentu publikoak zein pribatuak izenpetzea, Batzar Nagusiak eta Gobernu Batzordeak hartutako erabakiak betetzeko.
- 7- Erakundearen izenean igortzen diren dokumentuak, mezuak eta idazki ofizialak sinatzea.
- 8- Sor daitezkeen premiazko auziak ebatzea, Gobernu Batzordea biltzeko astirik ez egotekotan. Halaber, gertatutakoaren berri ematea hari egiten den hurrengo bilkuran.
- 9- Erakundearen administrazio-zerbitzuen burua eta bere efikaziaren erantzule izatea.
- 10- Estatutuen arabera zehapenak ezartzeko prozedura gauzatzea.
- 11- Zuzendaritzako eta kudeaketako gainerako eginkizun guztiak, betiere gobernu-organoek kudeatzen ez badituzte.

#### **35. artikulua: LEHENDAKARIORDEAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK**

Lehendakaria ez dagoenean, gaixotu bada, edo hil denean, eginkizun eta ahalmenak lehendakariordearenak izango dira, baita Gobernu Batzordeak agindutako beste jarduera guztiak ere.

### **36. artikulua: IDAZKARIAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK**

Gobernu Batzordearen idazkariak honako ahalmenak eta funtzioak izango ditu:

- 1- Gobernu Batzordeko eta Batzar Nagusiko aktak idaztea, baita horiei dagozkien liburuak kudeatzea ere.
- 2- Lehendakariaren oniritziarekin, erakundearen ziurtagiriak igortzea.
- 3- Beren kargua dela eta, akta-liburuaren artxibategiko gordailuzaina izatea.
- 4- Esklusiboki lehendakariarentzako ez diren korrespondentzia eta dokumentuak sinatzea, betiere dagokion baimena jaso ostean.

### **37. artikulua: BATZARKIDEEN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK**

Batzarkideen ahalmen eta eginkizunak hurrengo hauek dira: agintzen dizkieten zeregin guztiak betetzea; kide diren gobernu-organoen bileretara joatea eta deliberazioetan parte hartzea, baita hartzen diren erabakietan ere, eta aurreko artikuluetan aipatutako organo horietako arduradunei behar bezalako laguntza ematea.

### **38. artikulua: ZUZENDARITZAREN AHALMENAK ETA FUNTZIOAK**

Gobernu Batzordearen etengabeko kontrol zuzenaren pean, honek zuzendari profesional bat edo beste BGAE bat, edo borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen kudeaketa- eta administrazio-lanak egiten dituzten behar bezala baimendutako eta gainbegiraturiko beste erakunde batzuk kontrata ditzake. Edonola ere, haiek eskarmentu eta prestakuntza nahikoa izan behar dute gizarte-aurreikuspenenari dagokionez, eta haien eginkizun zein ahalmenak berariaz aginduko zaizkionak izango dira; besteak beste, honako hauek zerrendatu ditzakegu:

- 1- Erakundearen kontabilitate- eta administrazio-lanen kudeaketa eta antolamendua arazko liburu eta erregistroen bitartez.
- 2- Gobernu-organoei aurkeztu beharreko informazio ekonomiko eta finantzarioa prestatzea.
- 3- Erakundearen konpromiso fiskalak eta legalak betetzeko beharrezko informazioa prestatzea.
- 4- Erakundearen gobernu-organoei agindutako finantza-eragiketak gauzatzea.
- 5- Gobernu Batzordeak beste batzuei agindutako lanak ezagutzea eta aztertzea, eta behar den bezala gauza daitezen laguntzea. Halaber, kudeaketaren barruko kontratuak kontrolatu, gorde eta zaintzea, eguneratuta eta agintaritzea eskudunak eskuratzeko moduan dagoen erregistratzeko liburu batean sinatuta.
- 6- Kontu-ikuskariei laguntzea beren eginkizunetan.
- 7- Likidatzailei laguntzea beren eginkizunetan.

8- Erakundearen zerbitzu guztiez arduratzea.

### **39. artikulua: ADMINISTRAZIO GASTUAK**

Administrazio-gastuak ehunekotan kontsignatu beharko dira, erakundearen sartutako gizarte-aurreikuspeneko planen araudietan, eta ezin izango dute gaintu urteko kopuruaren arabera indarreko legeriak ezarritako gehieneko ehunekoa.

## **VII. TITULUA**

### **GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK EBAZTEA**

#### **40. artikulua: GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK**

Bazkide arruntak, onuradunak edo haien eskubidedunek beren interesekin eta legez aitorturiko eskubideekin loturiko kexak eta erreklamazioak aurkeztu ahalko dizkiote Gobernu Batzordeari edo bazkidearen babesleari, haien aukeran.

Gobernu Batzordeak dagokion ebazpenaren gaineko erabakia erakundearen zuzendariari eskuordetu ahalko dio, edo, hala badagokio, bertan zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisikoei edo juridikoei.

Bazkidearen babesleak gehienez 15 eguneko epean ebatziko ditu dagokion prozedura-arautegiari jarraiki planteatzen dizkioten erreklamazioak, eta haien aldeko erabakiak lotesleak izango dira erakundearentzat.

Bazkidearen babeslearen edo, hala badagokio, Gobernu Batzordearen erabakia ez da oztopo izango babes judizialaren osotasunerako, ezta kontrol eta gainbegiratze-administratiboaren funtzioak betetzeko ere.

Aurrekoa gorabehera, kexa edo erreklamazioak Batzar Nagusiaren edo Gobernu Batzordearen erabaki bat eragiten badu, Estatutu hauetako 36. eta 33. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

**VIII. TITULUA**  
**DIZIPLINA ARAUBIDEA**

**41. artikulua: FALTAK**

Faltatzat joko dira gizarte-aurreikuspeneko planei eta erakundeari kalte egiten dieten ekintzak edo ez-egiteak, administrazio-, kudeaketa- eta zuzendaritza-funtzioak betetzen dituzten pertsonak egiten dituztenean, baita gobernu-organoetako kideek, likidatzaileek eta bazkide eta onuradunek egiten dituztenean ere. Ondore horietarako, honako hauek joko dira gertaera zehagarritzat:

- a) Ez betetzea estatutuetao arauak, erakundearen funtzionamendu-arauak edo horretan sartutako gizarte-aurreikuspeneko planen araudiak, edo bere helburuak betetzeari buruz bere gobernu-organoetatik ateratako akordioak.
- b) Erakundearen interesei iruzur egitea edo helburu horretara daramaten baliabideak ematea.
- c) Erakundearen aurrean egindako adierazpenak faltsutzea, edo prestazioak nahiz etekinak emateari buruz edo beste edozer jakinarazpeni dagokionez zehatzak ez diren datuak ematea.
- d) Erakundeari edo gizarte-aurreikuspeneko planei ez jakinaraztea bazkideen edo beren onuradunen egoera partikularrean edo pertsonalean gertaturiko edozer aldaketa.
- e) Erakundearen jarduera oztopatzea.
- f) Gobernu-organoetako bileretara justifikatutako arrazoirik gabe ez joatea.

**42. artikulua: ZEHAPENAK**

Erakundeak honako zehapen hauek ezarri ahalko ditu:

- a) Zehatutako pertsonari modu pribatuan ohartaraztea, ahoz edo idatziz.
- b) Jendaurrean ohartaraztea, horren berri dagokion moduan emanda, ereduzko zehapena izan dadin.
- c) Behin-behineko edo behin betiko kargugabetzea erakundearen gobernu-organoetako kidea izateko.

**43. artikulua: ZEHAPENAK EZARTZEKO PROZEDURA**

Erakundearen Gobernu Batzordea izango da organo zehatzailea. Falta espedientearen interesdunaren aurrean beteko da, agiri guztien bina ale jarrita, eta horietako bat

erakundearen agiritegian gordeko da. Gainera, zehapen-prozedura alde bikotasun, kontraesan, idazketa eta berehalakotasun printzipioetara egokituko da, eta honela gauzatuko da:

- a) Salaketa formala edo ofiziozkoa egingo da erakundeak zehagarria izan daitekeen gertaera baten berri duenean, eta lehendakariari helaraziko zaio.
- b) Lehendakariak karguen plegua osatu eta arau-hausleari helaraziko dio beharrezko bermeekin batera. Azken honek, jasotzen duenetik zenbatzen hasita, 15 eguneko epea izango du idatziz erantzuteko.
- c) Bi idazkiak, jaso diren aurrekariekin batera, Gobernu Batzordearen esku jarriko dira eta organo horrek dagokion ebazpena emango du egingo den lehenengo bileran, egoki deritzen aurretiazko ikerketak gauzatu ondoren.

## IX. TITULUA

### SOZIJETATEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

#### **44. artikulua: DESEGITEA**

Erakundea desegiteko aukera dago, berariaz horretarako bildutako Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu, honako arrazoiatarako bat dela eta:

- a) Helburu soziala desagertzen denean edo hura gauzatzea ezinezkoa denean argi eta garbi.
- b) Bazkide arruntak eta onuradunak amaitu edo desagertu direnean.
- c) Erakundeari emandako baimen administratiboak baliogabetzearen ondorioz.
- d) Beste erakunde batzuekin bat egiteagatik edo banantzeagatik.
- e) Erakundearen jardura jarraiko bi ekitalditan geratzeagatik edo eteteagatik, justifikaturiko arrazoirik gabe.
- f) Bazkide sustatzaileak edo Gobernu Batzordeak eginiko arrazoituriko eskaeraren eta Batzar Nagusiaren erabakiaren ondorioz, betiere aplikagarri den deialdian aurreikusitako gehiengoak lortu baditu erabakiak.
- g) Estatutuetan ezarritako xedea betetzeagatik.
- h) Orekatzeko plana ez betetzeagatik edo hura betetzeko ezintasunagatik, arauz ezarritako baldintzetan eta epeetan.
- i) Indarreko legerian edo honako estatutu hauetan desegiteko beharrezko gisa ezarritako arrazoiatariko batengatik.

#### **45. artikulua: LIKIDAZIOA**

Erakundea deseginez gero:

- a) Likidazio-epea irekiko da, bat-egite edo erabateko banantze kasuetan izan ezik. Denbora-tarte horretan erakundeak bere nortasun juridikoari eutsiko dio, eta bere izendapenari "likidatze-prozesuan" erantsiko dio.
- b) Batzar Nagusiak likidatzaile bat edo gehiago hautatuko ditu bere kideen artetik, betiere zenbaki bakoitietan, eta lan hori egiteko ordainsaria jaso ahalko dute. Likidatzaileek indarreko araudian aurreikusitako moduan gauzatuko dute likidazioa.
- c) Gobernu-organoek beren ordezkaritza-funtzioak betetzen jarraituko dute, baita likidatzaileei ez dagozkien gainerakoak ere.
- d) Unean uneko indarreko araudiak ez badu kontrakoa adierazten, likidazio-eragiketak egin ostean soberakinik balego, bazkide sustatzaileari itzuliko zaizkio.